THE UNIVERSITY OF NEVADA·RENO

BASQUE STUDIES PROGRAM
University of Nevada Library
Reno, Nevada, 89507
(702) 784-6086

Iraila'ko 21, 1976

M. P. Lafitte
"Herria"
11, rue Jacques-Laffitte
64100 Bayonne
FRANCE

Laffitte Jauna:

Euskeldun gizon bat laguntza eske eldu jaku. Bere aitaren asterrenak esagutu nai ditu. Umetan beste sendi baten semetzat artua izan zan, eta gertakizun onetzaz gaur arte ezdu ezertxo be jakin.

Bere odolesko aitaren izena baño ezdaki: Eugene Etchart. Aita au bear bada itxas-ontzi aundietako langillea izan za.

Seme au San Francisco'n (U.S.A.), 1945'garren urtean. Urtarril illean jaio zan, beraz bere aita bear bada 1944'garren urteko udabarrian uri onetan egon zan.

Seme onen aldez mesede eske gatoz. Zure albistari "Herria'n" zerbait idazten badezu, bear bada norbaitek aita onen asterrena aurkituko du. Seme onek bere aita bizi dan ala ez jakin nai du. Bizi ezbada, aita onen sendia esagutu nai du.

Aita au aurkitzeko bialtzen deuskuzuzan edozelako bideak onartuak izango dira. Eskerrik asko.

Jon Bilbao
Basque Studies Bibliographer

JB:vcj